

## Joxan Goñi "Conquis"eko arima


EITBko reallity ezagunaren atzean zuzendari lanetan ari da urnietarra. Laster badoaz berriro atzerrira, grabaketa berria prestatzera / 8-9



**Leire Etxezarretari elkarrizketa, Quebrantahuesos proban bigarren sailkatu eta gero** / 10-11



**Urnietako Sanmielak zuri-beltzeko oroimenetan, garai hartako protagonistekin** / 2-3



## Mielak Marizulon jarraituko du

Aurtengoan ez da Sanmielik izango, eta horren ordezkari kultur ziklo oparoa antolatu dute Urnietan. Asteburu honetan, musika eta dantza emanaldiak / 2-5



OSO GUTXI FALTA DA ELKARREKIN EGOTEKO!  
GORA SANMIELAK!

 **magale**  
IKASTETXEA

 **salestarrak**  
URNIETA





Nati eta Maritxu lagunminak dira aspalditik. AIURRI

# Sanmielak, zuri-beltzeko oroimenetan

Herriko jaiak nostalgiaz oroitzen diren garai pandemikoetan, mahaiaren bueltan bildu dira bi urnietar: Nati Garmendia Ubillos eta Maritxu Achucarro Urdangarin. Nor bere bizipenetatik, nor bere zuri-beltzeko argazkietatik

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

“Eguna hasi aurretik, Diana igarotzen zunan herriko kaleetan barrena; ohetik entzuten geninan musika eta saltoka hasten gintunan”, du gogoan Nati Garmendia Ubillosek. Begirada nostalgikoz bezain irribarre ederrez begiratzen dio lagunari Maritxu Achucarro Urdangarin, barreka: “Zeharo harrotuta ibiltzen gintunan, baita bezperan ere”. Sortzez, urnietarrak dira biak ala biak: lehena, 1929. urtean jaiotakoa; 1941ekoa, bigarrena. Denboran atzera egin eta iragan mende erdialdeko Sanmiel jaietara egin dute salto; urteak nahastuta baldin badituzte ere, ondo baino hobeto oroitzen dituzte herriko plazaren bueltan izaten

zirenak, baita eliza atzeko ez-kutupekoak ere.

Jaien bezperan, hilaren 28an, hain zuzen ere, giro berezia nabari zen jada Urnietan. San Juan plaza postuz betetzen zen, hainbat egunez, herriari bizitasuna emateko asmoz. Hala, biharamunean, eguzkia irtetzearekin batera hasten zen musika, jaien hasieraren iragarle: *ttunttuna* eta *txilibitua* eskuan, herriko etxe guztietan egiten zuten geldialdia, *musikilla* jo eta eskupekoa irabazteko. Beste urnietarrak lez, esperoan izaten ziren Garmendia eta Achucarro, musikariak beren atarira noiz ailegatuko zain.

Makina bat autobus iristen zen Urnietara probintziako zenbait herritatik, eguerdiko meza entzuteko; izan ere, Achucarroen esanetan, “bisitari asko etortzen zunan ebanjelioa aditzera”. *Eulianeako enbutua* deitzen zioten plazako sarrerari, jende pilaketagatik. Udaletxeko *komitiba* ere bertan izaten zen, erlijio-hitzorduek berebiziko garrantzia zutelako egun horietan: tartean, Ama Birjin eguna ospatzen zuten, Sanmielen ondorengo lehen igandean, hain justu.

Eliza hustu eta frontoia betetzen zen ondoren, ez zuen inork kale egin nahi-eta pilota-partidan. Hilaren 29an herriko lau onenek jokatzeko zuten, eta Garmendiak dio bere neba izan zela inoiz lehian; Ama Birjin egunean, berriz, eskualdeko pilotariak ere gonbidatzen zituzten.

## Plaza, festen erdigune

San Joan plazan ez zegoen atsedeen hartzetik jaiak irauten bitartean, zeren hamaika hitzorduk jantzen baitzuten irail amaiera. Horrez gain, askotariko postuak izaten ziren, “Egite ona”, besteak beste. Herriko tonbola zen eta

**ITXASPE** **gora urnieta!**

**FRUTATEGIA, IZOZKIAK ETA GOZOKIAK**

**Zelaialde, 2 • URNIETA • 943 009 427**

**iturbe**

SUKALDEA, ETXEA & DEKORAZIOA

ETXEA BERRITZEKO PROIEKTU INTEGRALAK

*Gora urnieta!!*

JARRAI GAITZAZU!

f i p y

Accion Catolica-ko kideek antolatzen zuten (gerora, Egape Ikastolak ipintzen zuten), Garmendiak azaldu duenez: "Oparibilketa egiten zunan eta tokiko merkatariek laguntzen zitenan horretan, alegia, nork beretik ematen zinan". Eskuratutako dirua herrian beharra zutenentzat zela azaldu du jarraian urnietarrak, baina, haren esanetan, "ez zunan batere erraza *erregaloak* tokatzea. Horregatik joaten gintunan guztiok *siempretoke-ra*". Horrela deitzen zioten beste postu bati, beti tokatzen zelako zerbait, nahiz oparirik txikiena izan. "Noizean behin, izaten zunan *erregalo* atseginik", aitortu du Achucarrok, "eskuz egindako bordatuak, esaterako; kanpoko jende asko gerturatzen zunan bertara". Francoren diktaduraren garaian, debekatu egin ziren ikurrinaren koloreko zintak, "nazionalistak" zirelakoan. Hortaz, zuri-gorridunak soilik saltzen zituzten.

Ildo beretik, bazen urnietar guztiak zapore gozoz gogoratzen duten norbait, Teresa, *Texa*. Gozokiak saltzen zituen igandetan, baita festek irauten zuten egunetan ere. Petril batean eserita oroitzen du Garmendiak: "Hantxe izaten zunan, mahaia bete gozoki. Ondoren, haurrek etxera laguntzen ziotenan ota-terekin, bai eta bidean *karamelu* bat edo beste kendu ere". Alabaina, ez zen herriko gaztetxoek egiten zuten gaiztakeria bakarra. Anis zaporeko zigarroak erosten zituzten, isilka, noski, eta eliza atzean ezkutatzeko ziren, "inork ere ez ikusteko; bestela, abisua pasaz gero, komeriak izaten genitinan etxean", aitortu du irribarre bihurritz Garmendiak.

Bestalde, atrakzioek zirrara handia sortzen zuten haurren



Sanmioletako tonbola, 1952. urtean. Mariaren Alabek San Juan plazan jarri zuten tonbola.

Argazkian, ezker-eskuin: Edurne Alkain Elosegi, Karmen Arruarte Makatzaga, Lourdes Iriondo Mujika, Pilar Iriondo Mujika, Tere Iriondo Mujika eta Sabina Arruarte Mujika. URNIETAKOERRETRATUZHARRAK

arteetan. Noria aipatu du Achucarrok: "Erotu egiten gintunan. Garrasika, bueltaka, poz-pozik. Tamalez, bi *pezta* balio zitinan, eta ez geninan *xoxarik* garai hartan". Horrela, noriako itzulieta poltsikoak hustutzeaz gainera, "Txurrerías Arturo"-ri egindako bisitaldietan gastatzen zituzten aurrezki guztiak.

#### Parte hartu gabe, begira

Jokorako parada ere izaten zuten urnietarrek. Urnietarrek? "Gizasemee", erantzun du azkar baino lehen Garmendiak; "Neskek? Bai zera!", atzetik Achucarrok, "gu begira izaten gintunan; ez geninan parte hartzeko aukerarik". Hori horrela, izkin batetik begira egoten ziren, gizonak jokoan aritu bitartean.

Eltze haustea du bietatik gazteena denak gogokoan: "Soka bat ipintzen zunan, eta zintzilik opariak. Begiak itxita poltsatxoak puskatzera joan behar izaten zitenan: gozokiak eta dirua, baltuetan; beste hainbatetan, hondarra eta ura". Zaku-lasterketa ere izaten zen, baita lokotx-biltzea ere. Jokoen ondoren, maiz joaten ziren taberna aldera; dena dela, gizonak bakarrik sartzen ziren, eta emakumeek kanpoan itxoian behar izaten zieten, berrikeretan.

#### Dantzaldia, hanka motz

Eguneko dantzaldiek toki berezia zuten jaien egitarauan, besteak beste, aurrezkuak nahiz makil-dantzak. *Sueltuan* ere aritzen ziren hasieran, Garmen-

diak azaldu legez, "galarazita" baitzeukaten mutilekin aritzea. Hala, bakarka, edo lagunekin astintzen zuten gerria, harik eta orkestina taula gainera igotzen hasi zen arte. "Lauretako trenean ailegatu, eta jetsi bezain pronto hasten zitunan herria girotzen", adierazi du Achucarrok. Beraz, baten batek gonbidatuz gero, Udaletxe azpira, *kontzejupera* joaten ziren dantzatzera, Don Juan apaizaren begiradatik ihesi.

### "ZEHARO HARROTUTA IBILTZEN GINTUNAN SANMIEL FESTETAN, BAITA BEZPERAN ERE"

"No te cases con la Lutxi, porque tienes diru gutxi, cásate con la Maria que tendrás lotería", hasi da kantatzen Garmendia. Gramola ekarri dute gogora, aguazilak ipintzen zuten Udaletxeko balkoitik, kontzertuen arteko atsedendietan. Labur gelditzen zitzairen, ordea, hitzordua, izan ere, *inular* partean etxeratu behar ohi izaten ziren. Berandutu zitzaion inoiz Achucarrok: "Orkestinak amaitu ondoren etxeratu nindunan behin gau erdian, eta amak ohetik: hi ikusi hauenak ordu hauetan ze esango din?". Zer pentsatu eman zion, nahiz eta gaua luzatzeko gogo betez izaten ziren gazte guztiak, eta ez soilik urnietarrak. Andoaindarrak eta hernaniarrak ere izaten zen inguruan. Bigarrenekin harreman estuagoa zuten, baina, zereginak egitera hara joaten zirelako, ez baitzen ez burdindegirik, ez drogeriarik Urnietan.

Eguedri partean ere biltzen zen jende andana tabernetan. Txapeleko alaba zen Garmendia, eta buru-belarri egon behar izaten zuten lanean; horregatik dio Urnietako ospakizun guztietatik gogokoena Xoxokako festak dituela. Garai hartan, 40 oilasko hartzen zituen bere amak, hil eta lumatu. Lau zatitan moztu eta ogi artean banatzen zituen. "Nere etxean ezagutu ditinat jende ilara luze-luzeak, ogitar-tekoa hartzeko zain". Achucarrok, berriz, balsean dantzatzeko luke beste behin ere gustura, "pieza ederrak jotzen zitiztenan...". *Texarekin* ere asko gogoratzen da, ziurrenik, urnietar gehienak bezalaxe. Izan ere, esku bete hamarkada igaro arren, nekez ahaztuko ditu bikoteak irail amaierak ekarritakoak. Eta, jakina, ekartzeko dituenak.



SANMIELETAN ZAINDU GAITEZEN,  
AURTEN ERE EZ DA TOKATZEN

**Gaztelo**  
GOZOTEGI ARTISAU  
BONBONERIA

**Gora Sanmielak!**

Errekalde kalea, 14 - 20.130 URNIETA - 943 008 406  
Zarautz ibilbidea, 76 - 20.018 DONOSTIA - 943 226 584



David Rosco Sustapen arloko zinegotzia eta Luxia Iriondo kultur teknikaria, astelehen goizeko agerraldian. AIURRI

# Sanmielen ordez, kultur ekitaldiz beteriko zikloa

Urnietako Udalak bigarren aldiz eutsi dio "Udazken K" kultur zikloari, oraingoz ezinezkoa baita jaiak eta ospakizunak antolatzea. Kulturaren aldeko apustua dela dio Rosco zinegotziak, beti ere unean uneko protokoloak jarraituz

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

"COVID-19ak gure bizitzan azaldu zenetik Urnietako Udalak oso garbi dauka kulturari eman nahi dion lekua. Egitaraua modu kontrolatu eta arautuan gauzatu da, horrela urnietarrek hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute. Beti ere segurtasuna bermatuz". David Rosco Sustapen zinegotziaren adierazpenak izan ziren, Udazkenean K kultur zikloaren aurkezpenean egindakoak. Banatu duten eskuorrian agertzen denez,

adin guztiak kontutan hartzen dituen agenda da. Haurrei begira ipuin kontaketa saioak eta irakurtaldiak antolatu dituzte. Eta helduei begira dokumentalak eta dantza, musika eta antzerki emanaldiak.

**SARRERAK SAROBEKO BULEGOETAN EDO BIBE.ME WEBAREN BIDEZ ESKURATU AHAL IZANGO DIRA**

Sanmielak ez dira aurtengoan ere ospatuko, baina egitarauan tarteak eskaini zaie Poxta Zaharretik jaietan antolatzen ziren hainbat ekitaldiei. Musikari loturikoak dira, ezinezkoa baita oraingoz gastronomiari buruzko ekitaldirik antolatu.

Udalak ekitaldietara hurbiltzeko dei egin die herrikideei. Hitzordu bakoitzeko sarrerak garaiz eskainiko dira eta horiek eskuratzeko bi modu izango dira: Sarobeko bulegora agertuz, edo Bibe.me webgunaren bidez.

## "Poxta Zahar eta Aukeran taldeen emanaldietan aforoa mugatua da"

LUXIA IRIONDO KULTUR TEKNIKARIA



UDALA

Urritik abendura bitarteko kultur agenda beterik dator. Teknikariak hauexek nabarmendu zituen: "Egitarau osotik hainbat egitasmo azpimarratu nahiko nituzke. Urriaren 1ean eta 2an Poxta Zahar gazte elkarteak DJ saioak eta elektro-txaranga emanaldia antolatu ditu. Urriaren 3an Aukeran dantza taldeak *Azken geltokia* eskainiko du. Hirurak eserita ikusteko hitzorduak dira, afora mugatuarekin. Urriaren 9an Ados teatro konpainiak *Kopaz kopa* antzezlanaren aurre estreinaldia eskainiko du,

Saroben. Urriaren 16an Etxeberri plazan kulturarteko topaketak antolatuko dira eta urriaren 21erako eta 22rako Zanpatuz elkarteak proiektzioak eta solasaldiak antolatu ditu. Gonbidatu gisa izango dira Iñaki Peña dokumental zuzendaria eta Edurne Pasaban mendizale ezaguna. Urriaren 24an Lourdes Iriondori buruzko ipuin baten aurkezpen ekitaldia izango da.

Azaroan koronabirusa ardatz duen *Zomorroaren kronika bat* erakusketa eskainiko da, eta azaroaren 12an La Basu hip hop kantaria gure artean izango da.


Abenduan, bestalde, eta euskararen egunarekin bat eginez, Xabier Lete gogoan, *Loreak eta zauriak* musika eta bertso ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da. Eta abenduaren 18an Aukeran konpainiaren *Migratzaileak sormen prozesuaren partekatzea ekimena* zuzenean ikusi ahal izango da".

Egitarau osoa herrikideek etxean jaso dute, egun hauetan.

## "Elkarlanaren ondorioa da Udazkenean K"

DAVID ROSCO  
ZINEGOTZIA

"Udazkenean K egitasmoaren bigarren edizioa da, aurtengoa. Urritik abendura bitarteko eskaintza izango da, arte eszeniko ezberdinez osaturikoa. Lekaion, Saroben eta herriko plaza eta txoko ezberdinetan burutuko dira. Egitaraua elkarlanaren emaitza da. Euskara, kultura, gazteria... Udaleko hainbat sailen arteko elkarlanaren ondorio da. Eta ezin ditugu ahaztu herriko hainbat eragile eta elkarte.



UDALA

Etxeberri plazako auzo elkarteak, Zanpatuz mendi elkarteak, Poxta Zahar gazte elkarteak eta Txanbolin Txistulari banda... horiei guztiei eskertza adierazi nahi diegu".

## Udazkenean K, asteburuan hasita lehen hitzorduak



Bass Again sound system ariko da, ostiral honetan.

**Urriak 1, ostirala. 19:00. Musika: DJ saioa. Plazido Muxika.** Poxta Zahar gazte elkartearen eskutik, DJ saioa Bass Again sound system taldearen eskutik. Doakoa da, aforoa bete arte.



"Azken geltokia" emanaldia eskainiko du Aukeran konpainiak.

**Urriak 3, igandea. 19:00. Dantza ikuskizuna. Jakutegi plaza.** Bizitza bidaia gisa ulertuta. Maletak norbanakoaren eta norberaren probabilitateak biltzen dituen metaforatzat hartu ditu konpainiak.



Kitadel Pare elektro-bxaranga.

**Urriak 2, larunbata. 19:00. Musika: Kontzertua. Plazido Muxika.** Poxta Zahar gazte elkartearen eskutik, "The Roristak" eta "Kitadel Pare" taldeek kontzertua eskainiko dute.



"Kopaz kopa" antzerkiaren aurre-estrenaldia eskainiko du Ados Teatroak.

**Urriak 9, ostirala. 19:00. Antzerki emanaldia. Sarobe.** Aste batzuk atzera gaztelaniazko aurre-estrenaldia eskaini eta gero, oraingoan euskarazko bertsioaren txanda izango da.



Aurtengo afitxa. POXTA ZAHAR

### Poxta Zahar taldearen mezua

"Uda amaierak ezer ona baldin badakar hori Sanmielak dira! Zomorro batek festak nahieran ospatzea galarazi baldin badigu ere, urnietarrentzat iraila amaierak daukan bixitasun hori berreskuratu nahi izan dugu... Asteburuan zer gozatua egongo da herrian! Plazido Muxikan, eta eguraldiak ez badu barkatzen Egape Ikastolan. Gerturatu zaitetzte eta giroaz goza ezazue! Ez dago geldituko gaituen zomorririk!".

Osasun arloko ikasketa zentroa



**943 33 64 91**  
Erratzu ind. 81, URNIETA  
[www.institutocesa.com](http://www.institutocesa.com)

**Matrikulazioa zabalik!**

**CERAMICAS NOGALES S.L.**  
*Aurrera Urnieta*  
**URNIETA**

- Sukaldeko altzariak
- Aluminio aroztegia
- Egur aroztegia
- Elektrizitatea
- Igeltsua
- Hargintza
- Iturgintza
- Pintura

Errekalde, 10. Urnieta  
Tel./Faxa: 943 009 284  
Tel.: 943 550 624  
[ceramicasnogales@ceramicasnogales.com](mailto:ceramicasnogales@ceramicasnogales.com)



GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## POSTONTZIA

ANDONI ALVAREZ, EH BILDU ANDOAIN

## Erantzukizuna

Zinegotzi naizenetik bilera, batzar edo ekitaldi ugaritan parte hartu dut. Horietako batzuetan ni bezala herrigintzatik politikara salto egin duen jendearekin egin izan dut topo. Askotan, elkarrizketa bera izaten dugu: zer da gure ardura berrian onartzea gehien kostatzen zaiguna. Eta ondorio beretsura iristen naiz hitz egindako gehienekin; alderdien arteko joko eta ezta-baidek sortzen duten nekea.

Hauteskundeetara aurkezteko baiezkota eman nuenean, Andoainen alde lan egiten jarraitzeko aukera bezala ulertu nuen. Oraindik orain horrela bizitzen dut zinegotzi bezala dudana ardura. Oposizioan egonda, nahiko nukeena baino gutxiago lagundu dezaket askotan, baina egunero-kotasunean eraginkorra izateko helburuarekin nabil lanean.

N-1 errepidearen gaia Andoainek duen arazo nagusienetako bat da. Urtetan zehar aldarrikapenerako gaia izan da, eta baita

politikari profesionalek kanpaina egiteko erabilitako gunea ere. Baina soluzioak, inoiz ez dira mahaigaineratu.

Orain gaia mugitzen hasi dela ikusi dugunean, proposamen bat jarri dugu mahai gainean. Laburbilduz hiru ardatz nagusi biltzen dituen; alderdikeriak baztertu eta herri ikuspegiarazitzea, gaia behar bezala lantzeko marko bat finkatzea eta denok elkarlanean aritzeko helburuz herri elkarte edota eragile ezberdinei irekia izatea. Proposamen hau Hirigintza batzordean ahoz zein idatziz egin genuen, eta ondoren publiko egin genuen andoaindarrek ezagutu zezaten.

Hiru egun beranduago proposamen horri Andoaingo EAJ-PNVko lehendakari eta zinegotzi den Imanol Goenagak emandako erantzun publikoak atsekabetu nau. Ez dakit nondik dator kion EH Bildurekiko adierazi duen herra hori. Baina bere gutuna irakurri eta gero, nire udal taldeak publiko egindakoa berriz ere irakurri behar izan dut, bera mintzeko zein arrazoi zegoen jakin nahian. Birritan irakurri dut oharra, ez dut inondik inora ezer mingaririk topatu.

Eta berriro esan beharra dago. N-1aren arazoari irtenbidea ematea andoaindar guztioi dagokigu. Alderdikeriak alde batera utzi eta elkarrizketa zintzo bat garatu beharra dago. Korapilo asko daude askatzeko, eta garbi hitz egin behar da. Foru Aldundiak egingdako proposamen horren arabera, zein da Alejandro Calonjeko bizilagunen etorkizuna? Beraien auzoa behin betiko errepidearen atzean geratuko da? Eta zer geratuko da Buruntza edo Mimen-di-Bazkardo auzoekin? Zein zarata eta kutsadura mailarekin elkarbizi beharko dute? Zein da Sorabillako arazoari irtenbidea emateko aukerarik onena? Ikastolara errepidea are eta gehiago gerturatuta, pantailak jarri arren, daukan arazo konponduko da?

Herriari luzatu diogun eskaintza zintzotasunetik eta erantzukizunetik eginga dago. Zinegotzi izan aurretik andoaindarra nintzen bezala, Udalean ditudan ardurak amaitutakoan Andoainen bizitzen jarraituko dut. Eta etorkizunean, N-1era begira jartzeko gehiago egin nezakeen edo ez pentsatzen egotea baino, nahiago dut orain gaiari behar bezala heldu.

## LARRAMENDI BAZKUNAK ADMINISTRARIA BEHAR DU

## Eskatzen da:

- Euskaraz lan egiteko erabateko gaitasuna izatea hitzez zein idatziz.
- Dirukontuak kudeatzeko aplikazio informatikoen erabilera ongi ezagutzea.
- Enpresa kudeaketa eta administrazio ikasketarik egin izana edo amaitzen aritzea.

## Baloratuko da:

- Gisa bereko lanetan izandako eskarmentua.
- Euskalgintzarekin lotura duten ekimen edo eginkizunetan lan egin izana.
- MLKB-eko bazkide izatea.
- Ingelesa edo frantseseko ezagutzarik izatea.

## Eskaintzen da:

- Astean bost orduko laneguna. Berehala hastekoa.

## Aurkezteko epea:

- Curriculumak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da.

Bidali edo aurkeztu zure curriculum-a [harrera@larramendibazkuna.eus](mailto:harrera@larramendibazkuna.eus) helbidera edo helbide honetara: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Dr. Huizi kalea, 15-1. 20140 ANDOAIN (656-782-521).



Urnieta  
udala



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

## Aiurri eskuragarri:

Etbez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

## Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus) [www.aiurri.eus](mailto:www.aiurri.eus) @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

**Maketzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetza:** Garbiñe Ugartemendia. [ldazkaritza@aiurri.eus](mailto:ldazkaritza@aiurri.eus)

**Publizitatea:** Fer Irazu. [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

**Banatzaleak:** Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnieta).

**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus) | [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus). Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

# MUAZPI

## Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

**Gora Urnieta!**

Errekalde, 14. Urnieta  
943 008 304 / 665 73 78 71  
[muazpi@gmail.com](mailto:muazpi@gmail.com)



Iazko sari banaketa ekitaldiko argazkia. AIURRI

## 2022ko Udal egutegia osatzeko deialdia argitaratu dute

Lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira Andoain.eus webgunearen bitartez

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak datorren urteko egutegia herritarren partaidetzarekin osatu nahi du, lehiaketaren bitartez aukeratuak izango diren 12 argazkiekin. Irabazle bakoitzak 100 euroko diru saria irabaziko du. Aurten berrikuntza bat txertatu dute aukeraketan: pertsona berak sari bakarra jaso ahal izango du. Aurtengo lehiaketaren gaia "Andoaindarrak" izango da. Argazkiek argitaratu gabeak izan behar dute eta egile bakoitzak gehienez bost argazki aurkeztu ditzazke. Parte hartzaileek 16

urte gorako herritarrak izan behar dute.

Formatua aurreko urteetakoa da: Bereizmen handiko digitala aurkeztu behar da, horizontala eta 2-10 MB pisukoa, zabaleran 4350 px eta altueran 2900 px. Bereizmena 300 ppp-koak izan behar du, paperean argitaratzeko kalitatea behar baita. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu behar dira. Lehiaketaren irabazleen berri azaroaren 15a baino lehenago emango du Udalak.

2022ko Udal egutegia osatzeko lehiaketaren oinarriak andoain.eus gunean aurki daitezke.

**2022KO UDAL EGUTEGIA OSATZEKO LEHIAKETAREN GAIA "ANDOAINDARRAK" IZANGO DA**

**SARIDUNEN BERRI AZAROAREN 15A BAINO LEHEN EMANGO DUELA IRAGARRI DU UDALAK**

## Ortzaikako karobia piztuko dute larunbat honetan

Eguerdiko 12:00tan hasiko da ekitaldia trikitilari, txalapartari eta bertsolarien parte hartzearekin

### Erredakzioa ANDOAIN

Burdina taldeko boluntarioek karobia piztuko dute berriro, dagoeneko tradizio bilakatu den ekitaldian. Iazkoa Gabonetan egin zuten eta aurtengoan garai bateko data berreskuratu dute.

Ekitaldia hainbat taldekide go-goan hartzeko baliatuko dute. Manu Izagirre, Joxe Paulo Usandizaga eta Mikel Iradi dira azken urteetan hil diren taldekideak. Trikitixa, txalaparta eta bertso saioa iragarri dituzte.



Ondarreta kalean sinadura bilketa egiteko mahaitxo. AIURRI

## Udal ordezkarien babesak lortzeko elkarretaratzea

N-1eko zaraten aurkako plataformak elkarretaratzea deitu du, Udal batzarraldia hasi baino ordu erdi lehenago

### Erredakzioa ANDOAIN

Bazkardo eta Mimendiko bizilagun batzuren ekimenez, N1 errepideak eragindako zaratarekin amaitzeko milaka sinadura lortu dituzte. Ostegun honetan Udal batzarraldia izango da, iluntzeko 19:00tan hasita. Sinadura sustatu duten herrikideek elkarretaratzea deitu dute Goikoplazan, arratsaldeko 18:30erako. Sareetan zabaldu duten mezuaren arabera, Udal ordezkarien babesak jaso nahi dute: "Elkarretaratzea deitu dugu udaletxearen aurrean, gure ordezkari politikoei babesten

gaituztela ikusteko". Herritarrak agertzeko deia luzatu dute, "Andoaingo herriarentzat oso garrantzitsua baita".

Ostegun honetako Udal batzarraldiaren 6. puntuan ordezkariak izango dituen lau alderdiek (EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos) auzotarrek aurkeztutako mozioa aztergai izango dute. Mozio hori EH Bilduren, PSE-EEren eta Elkarrekin Podemosen babesarekin aurkeztu da, eguneko zerrendan. Udal batzarraldiaren jarraipena egin daiteke Udalak Youtuben duen kanalaren bitartez.

**OSTEGUN HONETAKO UDAL PLENOA 19:00TAN HASIKO DA; ELKARRETARATZEA BERRIZ 18:30EAN**

**UDALAK DUEN YOUTUBE KANALAREN BIDEZ PLENOAREN JARRAIPENA EGIN AHAL IZANGO DA**



Ortzaikako karobia piztu zutenekoa, 2018. urtean. AIURRI

## GUTUNA

### BADA GARAIA EKIMENA

ANDOAIN

## Lehen hitzordua urriaren 1ean

Ikasturtea hasi eta atzean geratu dira udako egunak. Atsedeen eta opor egunak izan ditugu. Baina baita ere aldarrikapenerako sasoiak. Asko izan baitira herriz herri, auzoz auzo euskal presoen eta senideen eskubideen alde egin diren ekimenak. Presoentzat eta senideentzat ez baitago ez atsedeenik eta ez oporrik.

Andoainen ohiko dinamikari helduko diogu. Eta ostiral honetan (urriak 1), ikasturteko lehen elkarretaratzea egingo dugu. Elkarretaratze berezia izatea nahi dugu. Batetik, ikasturteko lehena izango den indarrez eta gogotsu heldu nahi diogulako ikasturteari. Eta bestetik, data esanguratsu bat dugulako gainean. Iraila amaiera honetan 20 urte betetzen dira gure herrikidea Axier Oartzabal espetxeratu zutela. 20 urte espetxean. Inoiz andoaindar batek egin duen espetxealdirik luzeena da.

Gaur egun Lannemezan (Okzitania) herrian dagoen espetxean dago preso. Andoaindik 250 kilometrora. Gogoratu behar dugu 20 urte hauetan beti egon dela bere etxetik urrun: Paris (850km), Clairvaux (1100 km), Saint Maur (550km)... eta orain Lannemezan.

Elkarretaratze berezi honetan espetxealdi luzeek presoarengan zein senideengan duen eragina salatu nahi dugu. Une honetan konponbiderako garaiak bizi ditugu. Presoen espetxealdi luze hauek mendekuari soilik erantzuten dioten neurriak dira. Elkarbizitza eta bakea eraikitzeko ezinbestekoa izango da presoak etxean egotea.

Hori dela eta deialdi berezia egin nahi diogu andoaindar guztiei urriak 1ean, ostirala, 20:00etan hasita Goikoplazan egingo dugun elkarretaratzean parte hartu dezaten.

**Andoni Urbistondo** URNIETA

Kazetaria ogibidez, 'El Conquistador del fin del mundo' reality-ak daukan arrakastaren eragile zuzena da Joxan Goñi (Urnieta, 54 urte), programako zuzendaria dela inork gutxi badaki ere. Zirimola batean sartua dabil programak audientzia handiak lortzen hasi zenetik, eta sormen lanean gozatzen du, "pelikula bat egitea bezalakoa delako". Ez eskatu mesederik, ez baitute inor entxufatzen: "Ez dago azpikorik, programa gardena da".

**Zenbat denbora dagoeneko 'El Conquistador del fin del mundo' saioan?** 17 urte.

**Eta, gogotsu 18. ekitaldiari heltzeaz?** Beno, gorabeherak egoten dira. Egun hobeak eta ez hain onak egoten dira, baina bai.

**Zein unetan zaude orain? Xehetasun guztiak lotzen, pentsatzen dut.**

Bai, urrian lan talde bat joango gara Karibera, gauzak prestatzen hasteko. 18. urtea, ordea, aspaldi hasi ginen prestatzen, ekainean egin zen casting prozesuarekin, eta aurrez lotu behar diren hainbat konturekin. Urtarrilaz geroztik Karibeko uharte hartan dagoen jendearekin harremanetan nago, gauza guztiak lotzeko. Conquis saio bat martxan dago, ikusten duzue hemen telebistan, baina beste bat abian, dagoeneko. 17. ekitaldiak, gainera, halako eraldaketa bat ekarri du, inoizko audientzia daturik onenak eman dituelako. Batez beste %26.3ko share-a lortu zuen saioak. Horrek saioa bera, antolakuntza munstro handi bat bilakatzea eragin zuen, eta oso luzea egin zitzaigun. Zuhaitzari adarrak atera zitzaizkion leku guztietatik: aurrena programa bakarrik zen, gero debatea, ondoren webgunea, sare sozialak... Aurten Instagram-en ere hasi ginen, eta lana biderkatu egin da. Demagun lehen hasiera egun bat zeukala programak, eta bukaera eguna. Orain ez, orain ez da inoiz bukatzen. Aurten beranduxeago ari gara programa antolatzen.

**Share datuak aipatu dituzu. Ze azalpen dute datu on horiek?**

Batez bestekoa esan dut, baina finalean eretzeko modukoa izan zen. %38ko uneak izan genituen Euskadi mailan. Marka historikoa izan zen. Debateko zenbakiak apalagoak dira. Pandemia garaian, iaz, datuak asko igo ziren, jendeak etxean egon behar izan zuelako, baina nire ustez aldaketa Argentina atzean utzi eta Karibe alde-

# “Jendea muga-mugara eramaten dugu, munduko *reality* gogorrena da”

**JOXAN GOÑI** 'EL CONQUISTADOR DEL FIN DEL MUNDO' SAIKO ZUZENDARIA  
Karibera itzultzeko egunak kontatzen ari da, 18. saioari ekiteko. Audientzien diktadura, casting-ak, lanaren egunerokoa eta beste izan ditu hizpide



Joxan Goñi denboraldi berrirako atzerrira abiatu aurretik San Juan plazan ateratako argazkian. AIURRI

ra mugitu ginenean hasi zen, duela sei urte. Juanito Oiarzabal eta Jose Luis Korta kapitainak aldatu genituen, programak berrikuntza behar zuelako. Pertsonaiak zahartu egiten dira, eta jende gaztearen aldeko apustua egin zen, bai kapitain izateko, baita casting-ean ere, jendea hautatzeko. Eta asmatu dugu, audientzia kopuruetan igoyerarik handiena jende gaztearen artean eman delako. Sare sozialetan lan handia egin da, Twitter eta Instagram-en, batez ere, ETBko zuzendaritza berriaren apustua ere hori delako.

**Jarraitzaile mordoa du zuk zuzentzen duzun saioak, baina oso gustuko ez dutenak ere ez dira gutxi. Zer esango zenieke horiei?**

Normala dela. Telebistak aukera aberatsa ematen du, eta oso ulergarria da jende batek gustukoa izatea, eta beste batek ez. Nik neuk ere ez nuke ikusiko akaso, programako lan taldean ez bango. Nik orain reality asko ikusten ditut, lanagatik, baina ez nau lotzen.

**Ukazina da fenomeno sozial handia bilakatu dela. Casting-ean jende oldeak eman zuen izena.**

Bai, zuzenean 1.200 pertsona, eta bideo casting bitartez, 500 baino gehiago. Ia bi mila lagun, denera. Eta 36 lagunek parte hartzen dute azkenean lehiaketan.

**Zergatik ematen du izena hainbeste jendek?**

Nire ustez urtero egiten diren ekitaldi ezagunen traza hartu du saioak. Gure garaiko alderaketa bat erabiliko dut. Gu gazte ginenean soldadutza egitea desafio bat zen, erronka baten antzekoa. Handik pasa behar zen, bukatu egin behar zen. 'Eutsiko diot? Bukatzeko gai izango al naiz?', galdetzen genion geure buruari. Orain ere antzekoa da, Conquis Euskal Herriko soldadutza bezalako zerbait bilakatu da hainbat gazterentzat. Jendeak ez du famagatik parte hartzen, edo diruagatik, sariak ez direlako mamitsuak. Eta programa gogorra da. Une politak badaude, baina gogorra da. Erronka bat, desafioa da beraientzat.

**Kontatu dezakezun arte, zenbateraino da gogorra Conquis saioan parte hartzea?**

Oso gogorra. Guk onartzen dugu, parte hartzaileak muga-mugara eramaten saiatzen gara, gizakia- ren oinarrizko bizi-sena bilatzen dugu, eta parte hartzaileek badakite. Gainera gure reality-a





"Ez dago tranparik. Beste saio batzuetan janaria ematen zaie lehiakideei. Gure saioan ez". EITB

benetakoa da, ez dago tranparik. Beste saio batzuetan janaria ematen zaie lehiakideei. Gure saioan, ez.

#### **Eta zuk, gizaki zaren neurrian, lehiakideren bat muga-mugan ikusi eta zer pentsatzen duzu?**

Gaizki pasatzen dugu, nik dena ikusten baitut. Azken ekitaldiko finalean lan talde osoak negarra egin zuen Nahiak irabazi zue-nean. Nik neuk medikuarekin eztabaida gogorak edukitzen ditut, ze jarraipena oso zorrotza da. Talderen batek bost egun egin ditzake jan gabe, euria goian behean, eta medikuak galdetzen dit: 'aizu, noiz arte luzatu behar duzue egoera hau?'. Eta nik: 'baina ondo daude?'. Eta berak baietz, baina kontuz ibiltzeko. Ezin diezu janaririk eman, orduan lehiaketa bera ustelduko litzatekeelako. Hor badago borroka bat, baina gehien harritzen nauena da giza gorputzak zenbat irauten duen. Etxeko egunerokotasunean aise bizi gara, baina lehiakideak konturatu dira astebete bizi baldintza txarretan egon, eta gorputzak erantzun egiten duela. Gorputza, jendea gogorra da. Gero joaten diren gazte askok ez dakite janaria

## **"GEHIEN HARRITZEN NAUENA DA GIZA GORPUTZAK ZENBAT IRAUTEN DUEN"**

prestatzen, edo motxila egiten, dena gurasoek egiten diotelako. Mundu guztian barrena ibili dira bidaiatzen, baina ez dute inoiz kanpin-denda batean lo egin, iluntzen du eta jendea bel-durtu egiten da argirik ez dagoelako... Horrelakoak ikusten ditugu.

#### **Egoera kritikoren bat bizi izan duzue?**

Ez. Covid-arekin arazoak izan genituen azken ekitaldian, eta finala atzeratu behar izan genuen sei hilabetez. Gero hurakan batzuk izan ditugu, eta egun batzuetan geratu beharra. Bestelakoan ez. Nahiko kontrolatua dago, jokoak probatuta... Istripu batzuk gertatu dira, baina zaintza zorrotza da. Lehiakideak ere lasai doazela esango nuke, zaintza zorrotza delako.

#### **Ze lan egiten duzu zuk?**

Denetarik. Programako azpiegitura osoa prestatu, gauza berriak sartu, joko berriak, lehiakideak hautatu... Hori lan polita da, sormen lana. Gero lan 'zikina' dago, dena antolatzea. 200 laguneko lan taldea gara, eta batzuk argentinarrak dira, besteak kolonbiarrak, ondoan karibearrak, gero euskaldunak... Hori dena koordinatu behar da: kamara guztiak eraman, antolatuta, komunikazio guztia lotu, ondo funtzionatzeko... Gauden tokian errepiderik ez dago, eta ontzi txikietan mugitu behar gara. Haien erregaia eguneroko banatu behar dugu, eta erregaia zaintzeko langile bat

daukagu, lapurtu ez dezaten. Sekulako buruko mina da. Lekuak bilatzea, jokoak... pelikula bat egitea bezalakoa da. Bestea enpresako lana. Desgaste latza da, ze 200 lagun koordinatzea ni neu, Txema Montoya eta Vero, produkzioko langilearen ardura da. Gogoan dut egun batean ontzietako gidariak greba egin zutela, norbaiti ez ziotelako ordaindu. Edo janaria ez zaielako gustatzen. Ogitar-tekoak eman genizkien, baina arroza ez genielako eman, ba protesta egin zuten. Sukaldariari arroz kilo batzuk prestatzeko esan behar izan genion azkar batean.

#### **Zenbat denbora egiten duzu Karibeetan?**

Iaz bi hilabete eta erdi. Langileek ez zuten PCR analisisirik egin nahi, ze positibo ematen bazuten kaleratu egin behar genituen, eta halako akordioa lortu genuen, non positibo ematen bazuten soldata erdia ordaintzeko. Aurten Covid-arekin arazo gutxiago izatea espero dut, baina Gabonak gertu izango dira bueltatzen naizenerako.

#### **Non gozatzen duzu gehiago? Grabaketan edo programak hasten direnean etxean?**

Biek dute bere alderdi ona. Grabazioa oso intensoa da, baina bukatzean lan talde gehiena aldatu egiten da, edizio arlokoak bakarrik geratzen dira. Edizioak sei hilabete irauten du, eta nekoso da.

#### **Zenbakiak itzelak dira. Esan duzu, 200 laguneko lan taldea. Ze aurrekontu du programak?**

Hori ezin da esan, sekretua da. EITBren zenbakiak dira. Diru asko mugitzen da, baina ezin dut zenbat esan. Aurrekontua handia delako grabatzen da Hego eta Erdialdeko Amerikan, Euskal Herrian grabatzea ezinezkoa litzatekeelako.

#### **Grabazio orduak zenbatuta dituzu?**

Milaka ordu. Egunerokoa grabatutakoa deskargatzen da, sailkatu eta seguritateko bi kopia egiten dira, hemengo lan taldera igorri eta editatzen hasteko. Formatu digitalean sekulako pisua du. Pentsa ze baliabide ditugun: 12 kamara, bi garabia, dronea...

#### **Eta bertako jendeak zer esaten du?**

#### **Beste mundu batekoak zaretela pentsatuko dute, ezta?**

Beno, Karibeetan reality asko grabatzen dira, baina flipatu egiten dute. Batez ere euskaldunekin, eta neskekin. Han neskak beste modu batean ikusten dituzte, eta ez dute ulertzen nolatan egiten duten mutilen lan bera, lokatze-tan sartu, jan edota dutxatu gabe egon, neskek biraoak botatzea... Beste kultura bat dute, eta ez zaie buruan sartzen.

#### **Askok egiten duten galdera. "Entxuferik" ba al da casting-etan?**

Ez. Eskerak? Bai, eta opariak eskaini ere bai: dirua, urdaiaz-pikoa eta beste. Alde horretatik programa gardena da, ez dago azpijokorik.

#### **Jende xelebrea bilatzen duzue, batez ere.**

Ez, denetarik bilatzen dugu. Parte hartzen duen jendea normala da, baina han, muturreko egoeran, estututa, hemen ezagutzen ez den pertsona agertzen da. Jende xelebrea egon izan dela? Bai, baina aurten irabazi duen neska, Nahia, pertsona normala da, Iruñean bere ile apaindegia daukana. Bai, gimnasioan borroka egiten duen neska bat, baina zu edo ni bezalako pertsona arrunta da.

#### **Orain dena da lorea, laudorioa, poza, baina 'Conquis' saioko hasiera ez zen hain samurra izan.**

Lehen bi urteetan oso datu justuak eman zituen. ETBk batez beste %18ko share-a zeukan, eta gure programa nahiko behetik. Orduan Pello Sarasola zen ETBko arduraduna, eta haren apustu pertsonala izan zen, saioak jarrai zezan. Jarraitu genuen, eta asmatu zuen, orain ditugun zenbakiak sinestezinak direlako.

#### **Eta nola bizi duzue barrutik, jakinda zuen jarduna zenbaki horien baitan dagoela?**

Garbi esanda, *putada* bat da. Beste programa batzuk egin ditugu, nire ustez on askoak, baina ez dute zenbaki onik eman, eta segituan kendu dute parillatik. Audientziaren menpe bizi zara, eta programek behar dute denbora bere tokia bilatzeko. Nire kasuan astearte goizak gogorak izaten dira, ze programa astelehenean da, eta goizeko zortzietarako datuak ja sakelakoan dituzu fresko-fresko. Datuak onak badira, ba arnasa hartu. Txarrak badira, ba buru jana latza. Gero zure ordutegi berean beste telebista kateetan-eta ze programa jartzen dituzten zaintzen egoten zara beti. Urduritasuna berehala pizten da erabakiak hartzen dituztenengan, datuak txarrak direnean, eta irauteko tartea benetan txikia da.

#### **'Conquis' saioa hizpide da jende askoren ahotan, baina zuk zure anonimotasuna gordetzen duzu, ez zaude fokuen begiradapean. Nolatan?**

Nik nahiago dut ez egotea, oso nekoso da. Julian Iantziarekin edozein tokira joatea nekagarria da: argazkiak, autografoak... Gustatzen zait, nire anonimotasunean, Euskal Herriko edozein taberna kafe bat hartu, edo trenean zoazenean, programaren hainbat komentario entzutea. Onean eta txarrean. Eta horiek apuntatzea dut gustuko, hobetzeko asmoarekin.

#### **Noiz hartzen du atseden Joxan Goñik?**

#### **Eskatzeko baimena emango balizute, zer eskatuko zenuke?**

Urnietako jende gehiagok parte hartzea. Lehiatu zen Nerea, Lekun baserrikoa, eta nahiko ondo aritu zen. Gero erretiratu egin zen.

Hala ere, ez etorri niregana programan sartzeko eskatuz. Casting-ean Urnietako norbaitek parte hartzen duenean nik ez dut erabakian parte hartzen, susmoak bazterte aldera.

#### **Zein izan da bi hamarkada hauetako xelebrekeriarik handiena?**

Andoni bilbotarrarena. Orain porno aktorea da. Casting-ean sekulako show-a sortu zuen hotelaren atarian, eta programa bakarra irauten zuen. Eskerrak programa zuzenean ez den, editatu egiten dugula... Gauza asko ezin dira emititu.



Etxezarretak errepidean egiten diren erresistentziako lasterketak ditu gogoko. **AJURRI**

# "Kirolari popularra izaten segiko dut"

**LEIRE ETXEZARRETA AIERTZA** KIROLARI AFIZIONATUA

Andoaindarra bigarren helmugaratu zen Quebrantahuesos txirrindularien martxa famatuan, hilaren 19an. Egundoko lorpen horrek ez dio mentalitatea aldaraziko

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Leire Etxezarreta Aiertza andoaindarrak urteak daramatza Tolosako Botarri erretegian, parrillero gisa. Ederki asko moldatzen da ikatza, haragia eta gatza maneiatuz bezeroei plater gozoak prestatzeko orduan, eta 2014an Gipuzkoako parrillero onenaren txapelketa irabazi zuen. Sakrifikatua da ostalaritzako ogibidea, eta Etxezarretak sukaldean ordu asko igarotzen ditu lau hormetan artean entzerraturik; eguneko eginbeharrak egin ostean, kirola aire zabalean egitea eta bere burua aske sentitzea izaten da bere desiorik handiena. Joan den asteburuan, bigarren iritsi zen Estatu espainiarreko ez ezik Europako zikloturistentzat mitiko-mitikoa den Pirinioetako Quebrantahuesos martxa zikloturistako helmugara, emakumezkoen mailan. Zazpi ordutik gora egin zituen bizikletan, ibilbidearen berezko gogortasunari ez ezik erauntsi zakarrari (etengabeko euria, kazkabarra, tximistak, kontrako haizea...) aurre eginez.

Ziklista afizionatuek, bizitzan gutxienik behin egin beharreko probatzat hartzen dute Quebrantahuesos-a, gogorrenetan gogorrena dela jakitun izanik. 200 kilometrok osatzen dute bere ibilbidea, eta tartean Pirinioetako lau mendi kate gainditu behar dira: Somport, Marie Blanque, Portalet eta Hoz de Jaca. Guztira, 3.875 metroko malda metatua dauka probak. Etxezarretak ibilbide hori 07:13:19ko denboran osatu zuen, eta Amaia Urkidiren (07:05:36) irabazlearen atzetik heldu zen Sabiñanigoko helmugara.

Elkarte antolatzaileko presidentea den Fernando Escartin profesional ohiak, proban zehar ziklistek jasan behar zituzten baldintza klimatologiko latzak kontuan hartuta, zera adierazi zuen: "epikoa izan da aurtengo edizioa, eta bere historialean aparteko tokia hartuko du, ziklistek erakutsi duten kemenagatik".

Etxezarretak kirolaren praktikarekin gozatzea da bere aspiraziorik handiena, eta ez du aldatu nahi filosofia hori; azken urtetan duatloietan goi mailan ibili arren eta orain Quebrantahuesos ospetsuan bigarren postua lortu izanak ez du ametsen jarrarazi.

**5.000 txirrindularik emana zuten izena, baina azkenean, 1.900 bes-terik ez zineten atera errepider. Eta horietatik, 100 parte hartzaile bazterrean geratu ziren hipotermiak jota...**

Bai, hala da, eguraldi txarra iragarri zuten aurrez, eta horrek atzera egin zien askori. Berez bi martxa izaten dira, luzea eta motza, Quebrantahuesos-a (200 km) eta Treparriscos-a (85 km). Baterako 8.000 dortsal eta bes-terako 2.000 jartzen dituzte normalki, baina aurtun, pandemia dela eta, 7.000ri eman ziguten aukera parte hartzeko, horietatik 5.000ri proba handia egiteko. Aurrez 14.000 txirrindularik emana genuen izena, zozketan sartzeko.

Pentsa, bezperan zeru garbi-garbiaz gozatu genuen, baina igande goizalderako etengabeko euri jasarekin esnatu ginen. Proba 08:00etan abiatzen zen Sabiñanigotik, eta ordu erdia lehenago oraindik Jacan nengoen, "atera, ez atera" dilema askatu ezinik. Orduantxe, zeruan ateri une bat zabaldu zen, eta di-da, bi aldiz pentsatu gabe erabaki nuen parte hartzea. Proba amaitu ostean helmugan askok komentatu zuten bezperan parte-hartzaileentzat Sabiñanigon bertan prestatu zuten autokarabanen gunean mundu guztia antzeko trantzean egon zen. Esan daiteke ateri une labur hark animatu zuela jendea, hark salbatu zuela aurtengo proba aurrera egin izana. Ez da batere gozoa irteeratik blai eginda abiatzea, eta deskuidatuz gero, igual inor ez zen aterako!

Hori bai, abiatu eta berehala, hor hasi zitzaigun eguraldi petrala berriro! Eta hura bidaide izanda ibili behar 200 kilometrotan! Tximistak, kazkabarra, euri zaparradak, haizea...

**Bertan behera geratu zitekeen martxa...**

Polemika txikia egon da, bai, ez irtetea erabaki zuten ziklista batzuk kexa agertu dielako antolatzaileei, arduragabeak izan zirela leporatuz. Baina egoki jokatu zuten nire iritziz; inor ez zuten derrigortu parte hartzera, eta animatu ginenok geuk hartu genuen erabakia, jakinda zein baldintzetan ibiliko ginen. Gainera, antolakuntzak sekula baino neurri handiagoak ezarri zituen; errepidean barrena, sekula baino suhiltzaile, ambulanzia eta erretiratzen zirenentzat

autobus gehiago jarri zituen. Datu bat dago argi: aurtengo edizioan, aurrekoetan baino ezbehar gutxiago gertatu dira. Jakina, hori hala izateko zeri-kusia ere eduki zuten parte-hartzaileen kopurua murriztu izanak eta guztiek ere aurtengoan prekauzioak modu berezian hartu izanak.

### Eguraldiari lotutako baldintza latz horiekin, posible ote da kirolarekin gozatzea?

Posible da, bai. Fisikoki prestatuta eta datorkizunarekin ondo mentalizatuta bazaude, batez ere. Izatez, nik hasi eta bukatu gozatu nuen. Errepidean tropelan joateak ez dit grazia askorik egiten; lasaiago ibiltzen naiz nire kasa maldan gora edo maldan behera, eta Quebrantahuesosek erruz eman zidan aukera hori.

### Poza galanta hartuko zenuen, bigarren helmugaratuta?

Bai, benetan! Baina ez postu horrengatik, ibilbide guztia gozamen hutsa izan zelako baizik. Izan ere, antolatzaileek probari ez diote lehia kutsua eman nahi izaten, eta horrexegatik ez dute podiumik jartzen. Gainera, helmugako megafonia matxuratu egin zitzaion, eta beraz, proba bukatu eta handik ordutara jakin nuen bigarrena nintzela, Jacara itzuli, dutxatu eta interneten saltseatzan hasi nintzenez. Egia aitortuko dizut, hogeigarren edo berrogeita hamargarren iritsita ere, antzeko pozarekin itzuliko nintzen etxera.

**Duatloietan aurre samar ibili izan zara maiz. Baina beharbada Quebrantahuesos probak emango zizun ospea orain. Bat baino gehiago gerturatuko zitzaizun egunotan...** Bakar batzuk bai, eta zoriondu egin naute. Egongo da jendea orain jakin duena errepideko



Leire Etxezarreta Portaletako portuan gora zihoala, Quebrantahuesoseko proban. LEIRE ETXEZARRETA

proba luze eta gogorretan nabilela, Aiurrin atera naizelako edo bestela ere, gauza horiek erraz zabaltzen baitira gaur egun teknologia berriei esker. Ez naiz lorpenak saldu zalea, diskrezioz ibiltzea dut gogoko, gehiegi nabarmendu nahi. Ez daukat sare sozialetan konturik zertan nabilen jakinarazteko, eta nahikoa daukat whatsapp inguruko jendearekin komunikatzeko.

### Zer komentatu dizu jendeak, zoriontzear gainera?

Burutik ez gaudela sano horrela gabiltzanok, eta antzekoak. Ea nondik ateratzen dudan den-

## "EZ NAIZ LORPENAK SALDU ZALEA, DISKREZIOZ IBILTzea DUT GOGOKO"

bora entrenatzeko, hori ere galdetu didate.

### Errepideko duatloien munduan ondo moldatu izan zara lehendik ere, eta orain Quebrantahuesosen bigarren. Ez al zaitu tentatzen lorpen handiagoen bila joateak, entrenamenduak sakonduz-eta?

Batere ez! Kirolari *popularra* izaten segi nahi dut. Horrela gozaten dut, burua aske sentitzea besterik ez dut eskatzen. Erronka bat begi aurrean jartzea izan da nire formula beti, motibazioa handitzeko asmoz; horietan, lehiatzera joaten naiz mundu guztia bezala, baina ez naiz obsesionatzen postu on bat lortzarekin, kirola eginez pozik ibiltzeak bai! Filosofia horretatik ez dut aldendu nahi, ze bestela burua estutzen hasiko nintzateke, eta sufritu egingo nuke. **Zein izaten da zure entrenamenduen plangintza?**

Esan bezala, erronka zehatz bat jartzen dudanean bolada baterako, bada, orduan, handitu egingo dut saioen intentsitatea. Horretarako, lantokiko ordutegiak eta jaien egutegiak ere lagundu egin behar izaten didate, noski. Quebrantahuesosi begira, astegunetan bizpahiru ordukoak egin ditut egunero, eta gero asteburuetan kostaldera ere arrimatu naiz, Gipuzkoan barrena bira eginez. Kostaldera asteburuetan bakarrik jotzen dut, han errepidea ez baitago brometarako. Horrela, bizpahiru orduko irteerak astegunetan

## "KIROLA PRAKTIKATUZ, BURUA ASKE SENTITzea BESTERIK EZ DUT ESKATZEN"

egin ditut, eta luzeagoak asteburuetan.

### Ezbeharririk izan al duzu sekula?

Bakarka aritzen naiz normalki, eta zorte ona eduki dut orain arte. Izan ere, geroz eta pazientzia gutxiago dauka jendeak autoan doanean. Bi txirrindulari edo gehiago ikusten baditu, orduan hartzen ditu neurriak; aurrean bizikleta bakarra daukanean, ordea... Iruditzen zait gidari batzuk, aurreratzea erabakitzen dutenean, begiak itxi eta azeleratu egiten dutela, "pasako naiz, pasako naiz" esanez batera. Gertu-gertutik pasatzen zaizkit asko ezker aldetik, eta gorputzean sentitu egiten dut autoen ziztua.

### Hurrengo kirol hitzorduak, zeintzuk dituzu?

Urritu egin dira probak han hemen, pandemiagatik. Ea egoera normaltzen den eta antolatzaileak ere animatzen diren! Deseatzen nago San Silbestreak eta antzeko lasterketa herrikoiak noiz etorriko. Luzaroago begira, berriz, Irati Xtrem edo Larra Larrau errepideko bizikleta martxa luzei helduko nieke gustura...

### Mendi-duatloiek, mendi lasterketek edo triatloiek ez al zaituzte erakarritzen?

Ez, errespetua ematen didate mendian zoazela parean topatzen dituzun harri-koskorrek-eta, eta ez naute tiratzen lasterketa mota horiek; San Rokeko igoeran parte-hartzen dut, baina auzokoa delako. Errepidean bizikletan ibiltzeko izan naiz beti, gazte-gaztetatik anaiarekin eta osabarekin hasi nintzenetik. Triatloiarako ere ez dut nire burua ikusten; igeriketan txukun aritu behar da, eta, gainera, ba al dakizu zenbateko dedikazioa eskatzen dizun hiru kirolen prestakuntzak?



andoaINDARRA  
euskaraz

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



Aurten saritu dituzten kirolariak. AIURRI


## "Mugitu Andoain" ekimenean kirolari ugari saritu zituzten

**EKITALDIA** Denboraldian zehar marka esanguratsuak lortutako kirolariak saritu zituzten

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Txirrindulari Eskolako kadete mailako txirrindulariak: Iker Ugartemendia, Ekhi Arrieta, Ganix Ormazabal, Markel Etxarri eta Ohian Mitxelena, eta Luis Beneitez eta Aitzol Zuriarrain entrenatzaileak. Gaz-

teleku Pilota elkarteko palako taldea: Koldo Ponce, Aritz Rekalde, Ibai Iradi, Xabi Alkorta eta Ibon Altuna pilotariak eta Mateo Ponce entrenatzailea. Eta azkenik, Ana Cero arku tira-tzailea, Euskadi eta Espainia mailan txapelduna.



JAVIMENTA

## Menta, seigarren Madrilen

**ATLETISMOA** Andoaindarrak aurreko asteburuan Espainiako hiriburuan lasterka aritu zen, proba bikaina burutuz. 10 kilometroko lasterketa 33:20ko denboran egin zuen, helmugara seigarren iritsiz. Hiriburuko etorbide nagusietan korrika zebilela, eguna argitzen ikusi zuen Javi Menta Zumeatarra elkarteko kideak.



Gabirondo, Azpeitian. UZTARRIA

## Gabirondo, Pentatloiko finalean hirugarren

**HERRI KIROLAK** Iztea VI eta Joseba Otaegi sailkatu ziren aurretik, Azpeitiako final handian

### Erredakzioa URNIETA

Julen Gabirondo urnietarra bikain aritu zen Euskal Herriko pentatloiko finalean Azpeitian. Xabier Zalduek iaz ezarri zuen pentatloiko marka (36:06) ondu zuen arren, ezin izan zion aurre egin Andoni Iruretagoiena *Izeta VI* ak erakutsi zuen nagusitasunari. Bost proba izan ziren denera: giza proban, bi plaza; aizkoran, hiru kanaerdiko eba-ki; txingekin, sei plaza; lasterka, 30 buelta, hiru kilometro. Hona IV. Euskal Pentatloi sariko azken sailkapena, gizonezkoetan:

1. Izeta VI.a (33:29).
2. Joseba Otaegi (35:08).
3. Julen Gabirondo (35:42).
4. Iñaki Errazkin (37:45).
5. Kepa Peñagarikano (38:25)
6. Aritz Irazabal (39:03).

## FUTBOLA Urnieta taldekoen partidak, asteburu honetan

Senior mailako mutilak Orion ariko dira (lar, 16:30), eta neskek etxean Urolaren aurka (lar, 15:30). Jubenil A taldea Luberriren zelaian ariko da (Ig, 16:00) eta B taldea etxean, Hernaniren aurka (lar, 18:15).



Gizonezkoen jubenil taldeko jokariak. AIURRI

## Urnieta taldeko jubenilek garaipen bana eskuratu zuten

**ESKUBALOIA** Neskek Leizaran Andoaingo taldea garaitu zuten, eta mutilek Donibane taldea

### Erredakzioa URNIETA

Urnieta Kamox Precision Machining taldeko neskek Leizaran gaitu zuten, igande goizean jokatu zen partidaren (23-21). Urnietarrek denboraldiko lehen puntuak eskuratu dituzte emozioz beteriko derbian.

Urnietako Guria Jatetxeko gazteek ere garaipena eskuratu zuten, larunbat goizean Donibane Eskubaloien aurka jokatu zuten partidaren (25-23).

Senior mailan, Urnietako emakumezkoek atsedean dute. Leizaranek, aldiz, debuta egingo dute.



EUSKALTEL EUSKADI

## Iturria, Giro di Sicilian

**TXIRRINDULARITZA** Italiako Giro di Siciliako itzulian lehiatzen ari dira Mikel Iturria urnietarra. Asteartean hasi zen lau etapako itzulia, eta ostiralean amaituko da. Iturriak taldekide hauek izango ditu alboan: Jokin Aranburu, Iker Ballarín, Mikel Bizkarra, Joan Bou, Unai Iribar, Mikel Iturria eta Txomin Juaristi.

## FUTBOLA Euskalduna talderen hasiera ona, Erregional mailan

Gizonezkoen erregional ohorezko mailako laugarren jardunaldia jokatu da asteburu hone-

tan. Ubitarte zelaian Euskaldunak Aloña Mendi taldea hartuko du. Talde urdinak bi garaipen eta berdinketa bat lortu ditu eta Touring eta Ordizia taldeekin batera sailkapenaren gaikaldean dago.




# Aiurri.eus | Bideo-sorta zabala



Kirola



Kultura




Oroimena



Feminismoa



Abeltzaintza



Ekitaldiak



Kirol albistek



Hirugarren adina



Emanaldiak

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTIRALA 1

## URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Tabernerro.  
17:00, Lekaio.

## URNIETA Musika

DJ saioa Bass Again sound system.  
19:00, Plazido Muxika plaza.

## URNIETA Ikastaroa

Txalaparta ikastaroa, Maizorri eskolaren eskutik.  
677 153 422  
maizorri@gmail.com.

## ANDOAIN Erakusketa

"Formal formal" izenekoa, Leizaran Institutua, zinema eta bideo eskola eta Punttuka bertso eskolaren lankidetzarekin. Protagonistak: Artistak: Ane Azkona, Sandra Cuesta, Jone Laspiur, Larraitz Torres, Iñigo Gomez, Itziar Gutierrez, Ane Lekuona.  
18:30, Bastero.

## LARUNBATA 2

## ANDOAIN Ekitaldia

Ortzaikako karobiaren piztuera, Burdina taldearen eskutik. Urriko lehen larunbatean.  
12:00, Ortzaika.

## ANDOAIN Merkatu plaza

Aurreko astean hasita, merkatu plaza Makaldegian egingo da.  
Goiz osoan zehar.

## URNIETA Musika

The Roristak, Kitadel Pare.  
19:00, Plazido Muxika plaza.



Gag movie antzezlan berria Andoainera iristear da. AIURRI

## ANDOAIN Yllanaren antzezlan, zinemagintzari keinu eginez

Zinemagile talde bat agertokian sartzen da bapatean. Ikusleekin bidaia dibertigarri bati ekingo diote zarpigarren artearen unerik ikonografikoenetako batzuetan zehar. Umorea erabiliz zinema nolakoa den ez ezik, nola egiten den, nola bizitzen den eta, batez ere, nola gozatzeko den erakutsiko digute.  
Urriak 9, larunbata. 20:30, Bastero. 12 euro.

## IGANDEA 3

## URNIETA Dantza emanaldia

"Hurrengo geltokia" ikuskizuna, Aukeran konpainiaren eskutik.  
19:00, Jakutegi plaza.

## OSTEGUNA 7

## ANDOAIN Lehiaketa

XXV. Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa. 10-17 urte bitartekoentzat. Andoaingo eta Urnieta ikasleek parte har dezakete. Info: Bastero.eus.  
Lanak aurkezteko epea: Urriak 8.

## URNIETA Haur irakurtaldia

"Liburutegiko xaguak", 4 urtetik gorakoentzat.  
17:00, Lekaio.

## ANDOAIN Antzerkia

Gagmovie, zinema ardatz hartu duen umorezko antzezlan.  
20:30, Bastero. 12 euro.

## LARUNBATA 9

## URNIETA Antzerkia

"Kopaz kopa" antzezlanaren aurre-estrenaldia.  
19:00, Sarobe.

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

## Jungle Cruise

Larunbata, 2. 17:00.

Igandea, 3. 17:00.

## Nora

Larunbata, 2. 19:30,

22:00.


Igandea, 3. 19:30.

Astelehena. 4. 19:30,  
22:00.

## Oin handiaren semea

Igandea, 3. 12:00.

Euskaraz. Eskaintza berezia: 2,90 euro.



## SINOPSIS




## Nora

Zuzendaria: Lara Izagirre. Aktoreak: Ane Pikaza, Hector Alterio, Naiara Carmona, Ramon Barea, Klara Badiola, Loli Astoreka, Iñigo Aranbarri, Itziar Ituño, Joseba Usabiaga, Kepa Errasti. Herrialdea: EH (2021). Generoa: Drama, komedia. Iraupena: 100 minutu.

## Nora euskal filmaren estreinaldia

Norak 30 urte ditu, bere aitona Nicolasekin bizi da eta bere bizitza ez da berak uste zuena. Lan txikiak ditu eta ia ez da bere herritik atera. Aitona

gaitzen duenean, Euskal Herriko kostaldetik bidaia bat hastea erabakitzen du, bere errautsak amonarenekin batera eramateko.



## Zinema euskaraz

Adam gazteak misio epiko bati ekingo dio bere aitaren desagerpenak ezkutatzeko, eta hau Bigfoot mitikoa baino ez dela konturatuko da.

## JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazioa.
- Sartu, **Aiurri Urnieta** edo **Aiurri Andoain** kanalean.
- Batu zaitez eta jaso eguneko albiste nagusiak.

ESKUALDEKO  
NORTASUN  
HITZAK

AIURRI  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Lore eskaintza egin zuten, San Juan plazako ekitaldian. AIURRI

## Gurutze lantzi gogoan hartu zuten, Urnietan

"Egia, justizia, oroimena" izenburupean, lore eskaintza egin zuten urnietarraren heriotzaren urteurrenean

### Erredakzioa URNIETA

1993ko irailaren 24an guardia zibilen eskuetan hil zen Madrilan, inkomunikazio egoeran zegoela.

### Fermin Argiñarenaren bertsoak

28. urteurreneko omenaldi-ekitaldian abestu zuten:

1

Hogeita zortzi urte gaur dira, jaso gendun berri txarra, bizirik eraman zuten baño hilotz ekarri beharra. Gurutze lantziz gogoratzean samiña eta negarra. Euskal Herria maitatzea zen bere delitu bakarra.

2


Elkar bizitzaz zer ulertzen den garbi dago ikusia. Batzuk bakarrik dira biktimak marketiña da guzia. Demokrazia hau baldin bada ustela ta itsusia. Soilik bi gauza eskatzen ditut: Egia eta justizia.

3

Ekialdetik ateratzen da eguzkia egunero. Esperantzaren argi izpi bat sentitu nahirik goizero, arrazoiaren indarrarekin esnatutzen gera edo. Bañan, Gurutze, gaurkoz ez diñat milagrorikan espero.



Fermin Argiñarena. AIURRI



EITB

## Laurehun lagunetik gora lehian

Egunean Behin lehiaketaren denboraldi berria abiatu da, eta "Aiurri" taldean 400 lagunetik gora ari dira lehian. Denboraldi honetan, gainera, aste osoko partidak jokatzeko dituztenen artean opari gozoa zozkatuko da: Arruti gozotegiko saria. Abenduaren 12ra arte luzatuko da Codesyntax enpresak garatutako lehiaketa ezaguna.



AIURRI

## Bigarren eskuko azoka

Jorge Lopez izena du eta andoaindar asko Juanita Alkain plazatxoan ikustera ohitu dira. Bertan jartzen baitu bigarren eskuko liburu eta diskoen postua. Bazterketa ekonomikoa pairatzen dutenei laguntzea xede duen Kaleko Elkartasun eta Kultur Elkarteko kidea da. Disko eta liburu ugari ditu, prezio onean.

## ZORION AGURRAK



ANDOAIN

**Xabat eta Galder Ormaetxea Lasa**  
Zorionak Xabat eta Galder!  
Aurten 8... Egun zoragarria izan!  
Maite zaituztegu.



ANDOAIN

**Zorionak Laida**  
Laidak urriaren 16an 3 urte beteko ditu. Etxekoan partez txokolatzeko muxu goxo bat.



ANDOAIN

**Amatxo Marivi**  
Egunero alai eta txinxo saiatzen zara gu bide zuzenetik eramaten, zaintzen. Etxekoak.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta etxeokak. Oso erraza da, eta dohainik!

- [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

## MERKATU TXIKIA

### ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpre-entzako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827**

Ingeles irakasle diplomatuak behar da klaseak emateko English First Certificate azterketa prestatzeko. **693 692 823**

### MERKATU

#### TXIKIAN

#### PARTE

#### HARTZEKO

Emailaz: [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)

Whatsappaz:

**619 163 537**

Tel.: **943 300 732**

Bulegora etorrira:

**Arantzibia 4-5, behea. Andoain**



- **Ehunka lagun jokoan, denboraldi berrian.**
- **Adi "Aiurri" taldeari! Astero sari gozoa Arrutiren eskutik.**





## Egunean Behin | Denboraldi berria



**Astero-astero Arruti gozotegiko saski gozoa zozkatuko dugu "Aiurri" taldeko partaideen artean. Zorte on!**